ASMOZ TA JAKITEZ

196

URTARRILA ENERO JANVIER 2009

EUSKO IKASKUNTZA

## El cineasta navarro Montxo Armendariz, Premio Manuel Lekuona 2008



Foto: Noticias de Gipuzkoa

El cineasta navarro Montxo Armendariz ha sido galardonado con el Premio Manuel Lekuona, que desde 1983 otorga Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos a personalidades de la cultura vasca en reconocimiento a la totalidad de su obra. Nacido en Olleta en 1949, Montxo Armendariz estudió electrónica en Pamplona y Barcelona, disciplina que ha ejercido como docente. El corto *Barregarriaren dantza* fue su primer trabajo cinematográfico, con el que obtuvo dos premios en el Certamen Internacional de Cine Documental y Cortometraje de Bilbao en 1979, así como el premio "Especial Calidad" del Ministerio de Cultura. En 1984 Montxo Armendariz rodó su primer largometraje, *Tasio*, con producción del guipuzcoano Elías Querejeta. En 1986 se adjudicó la Concha de Plata en el Festival Internacional de Cine de San Sebastián con *27 horas*, y cuatro años después la Concha de Oro con *Las cartas de Alou*, que también mereció el Goya al Mejor Guión Original.

Con *Historias del Kronen* (1995), un implacable alegato sobre el nihilismo juvenil, alcanzó su mayor éxito en taquilla hasta entonces a la par que el reconocimiento de la crítica y de los profesionales que le condedieron su segundo Goya como guionista. En 1997, *Secretos del corazón* fue galardonada como Mejor Película Europea en el Festival de Berlín y compitió en la final de los Oscar en la modalidad de Mejor Película Extranjera. En 2001 llevó a la pantalla una historia ambientada en el maquis español, *Silencio Roto*. Tras el documental *Escenario móvil*, en 2005 adaptó el mundo literario de Bernardo Atxaga en *Obaba*, proclamada como Mejor Película del año por la Asociación de Cronistas Cinematográficos del Espectáculo (ACE) de Nueva York. En 1998 Montxo Armendariz fue distinguido con el Premio Príncipe de Viana de la Cultura y con el Premio Nacional de Cinematografía.

La ceremonia de entrega del Premio Manuel Lekuona 2008 se realizará en Navarra en fecha aún por determinar.

## Hurrengo lau urteetarako talde zuzendari berria hautatu zuen Batzar Nagusiak

### La candidatura única, encabezada por el nuevo Presidente José Mª Muñoa, recibió el respaldo del 91,14 % de los votos emitidos



Abenduaren 26an, ostirala, hurrengo lau urteetarako talde zuzendari berria hautatzeko deituriko Eusko Ikaskuntzaren Ohiz kanpoko Batzar Nagusiak babesa eman zion Lehendakari gisa Jose Maria Muñoa Ganuza buru zuen baterako kandidaturari, zeinetan Lehendakariorde gisa Araban Federico Verastegui, Bizkaian Marta Ajuria, Gipuzkoan Teresa del Valle, Ipar Euskal Herrian Jean-Michel Larrasquet, Nafarroan Sixto Jimenez eta kanpoko Lehendariordetzan Maria Luz Arteche aurkezten ziren.

Bozkatzeari ekin aurretik, Donostiako Miramar Jauregitik eta Bilbo, Gasteiz, Iruñea eta Baionako egoitzekin bideokonferentzia bidez loturik, Jose Maria Muñoak bere iharduera programa azaldu zuen. "Gure ustez -esan zuen oraindik hautagai zenak- duela 90 urte Eusko Ikaskuntzaren eraketa eragin zuen sorrerako egitekoak indarrean jarraitzen du erabat. Euskal ikasketak sustatzearen bitartez Herrialdearen gizarte eta kultura premiak bideratzeko bokazioarekin sortu zen Elkartea, bertako komunitate kultural eta zientifikoa artikulatuz, planteamendu ireki eta integratzaile batetik eta, aldi berean, atxikitze ideologiko eta politikoetatik aske".

Beste helburu batzuen artean, berak adierazi zuenez "eremu kultural eta zientifikoan bururuturiko lan egokia oinarri harturik, berriztaturiko egiturek emandako bultzada eta teknologia berrien aldeko apustu sendoa baliatuz, Elkartea euskal kulturari buruz munduan zehar argi positiboa proiektatuko duen argiontzia izan ahal izango da". Hartarako, Eusko Ikaskuntzak lanean jarraituko du "euskal kulturaren alde, berau termino zabaletan harturik, lan egiten duten pertsona eta erakundeak biltzearren".

Bozketan emandako botoen %91,14k berretsi zuten baterako kandidatura; txarteletako %2,60 aurkakoak izan ziren, eta %6,25 zuri. Behin emaitzak aldarrikaturik, Xabier Retegi, azken sei urteetako Lehendakariak eta Jose Maria Muñoak bat egin zuten besarkada batez, zeinak Eusko Ikaskuntzaren buruan erantzukizun gorenaren eskualdatzea sinbolizatu zuen.

## Erakunde Bizitza



### Urteurren bikaina

Eusko Ikaskuntzaren 90. urteurrena ospatzearren, abenduaren 22an erakunde ekitaldi bat egin zen Donostiako Aquariumean. Ohorezko aurreskuaren ondoren, Vicente Zaragüetak, gonbidatzaile gisa, ongietorria eman zuen, eta Xabier Retegik, Eusko Ikaskuntzako Lehendakari gisa buru izan zen azken ekitaldi ofizialean, ospakizunaren esanahia finkatu zuen. *Izan ginelako... Garelako* antzezpena, Juan Aguirre bazkidearen gidoiarekin, ekitaldiaren atal nagusia izan zen. Bertan, Eusko Ikaskuntzak 90 urteotan buruturiko iharduerak berrikusten ziren era zabalean, tonu hunkigarri eta alaia erabiliz. Aquariumeko paraninfoa gainezka betetzen zuen jendeak gogo beroz txalotu zuen antzezle eta musikarien lana. Ospakizunaren grabazioa laster ikusi ahal izango da Interneten.

## Bekak / Becas / Bourses

### Apraiz y Zumalabe



Las disciplinas correspondientes a la Beca Angel Apraiz son las relacionadas con Lengua y Literatura, Historia-Geografía y Prehistoria-Arqueología; mientras que la Beca Agustín Zumalabe promoverá las investigaciones en Antropología-Etnografía, Ciencias Sociales y Económicas, Derecho y Medios de Comunicación. Ambas becas tienen una duración de un año y su dotación económica es de 6.000 euros. El plazo de admisión de propuestas termina el 28 de febrero.

### Arturo Campion



Hiru urtean behin deitu ohi den Arturo Campion ikerketa beka iragarri da. Kazetaritza alorrei eta Arturo Campion historialari ospetsuari eskainia da, funtsean horrek Nafarroako eta Euskal Herriko Historiarekin izan zuen loturaren ikuspegitik. Lana bi urtean egitekoa da, onarpen egunetik aurrera gauzatzekoa. Bekaren diru kopurua: 6.900 euro gordin. Martxoaren 31n amaituko da dokumentazioa aurkezteko epea.

### Bourse pour la Catalogne

INSTITVT D'ESTVDIS CATALANS MCMVII

Eusko Ikaskuntza et l'Institut d'Estudis Catalans accordent cette année encore des bourses à la recherche adressées à de jeunes chercheurs intéressés par quelque caractéristique précise aussi bien de la culture catalane que de la culture basque, en privilégiant les études comparatives. Le montant de la bourse, 4.680 euros, correspond à trois mois de séjour dans une zone de langue catalane. Le délai d'admission des propositions expire le 15 mars.

## EuskoSare

### Eve in Donostia



Kenny Ching, txinatar jatorriko iparramerikarraren *Eve in Donostia* narrazioak irabazi du EuskoSare Mikronarrazioen III. Nazioarteko Lehiaketa. Ingelesez idatzirik, garaile izan den obra honetan Donostian gertatutako bi gazteen amodiozko berraurkitzea kontatzen da. Kenny Ching-ek 30 urte ditu, Nevadan bizi da eta abokatu lanean dihardu. Nevadako Unibertsitatean kazetaritza ikasten ari zen eta unibertsitate horretako programa bati esker sartu zen harremanetan euskal kulturarekin, eta horrek Euskal Herrira bidaiatzeko aukera eman zion.

### EuskoSare se renueva




EuskoSare, la Red de la Comunidad Vasca Global (http://www.euskosare.org/), ha renovado su imagen y contenidos al comienzo del nuevo año. Entre las novedades, destacan las cuatro secciones *Mundo Vasco, Vanguardia, Identidad* y *Profesiones y Empresas*, que recogen la actualidad vasca desde una doble perspectiva local y global. El portal está redactado en cuatro idiomas, cuenta con más de 200 colaboradores y recibe unos 70.000 usuarios mensuales de diferentes puntos del planeta.

## Sariak / Premios / Prix

### Eusko Ikaskuntza-Ville de Baiona

On connaît maintenant les lauréats des Prix Eusko Ikaskuntza–Ville de Bayonne pour l'année 2008. Le Prix d'Honneur Culture Basque a été décerné à Benat Oihartzabal, euskaltzaina. Le Prix Culture Basque pour la meilleure thèse à David Seth Murray, de l'Université de Caroline du Nord pour sa thèse d'anthropologie sur *Communaux et contestations: Histoire de l'agropastoralisme dans la vallée de Baigorri*. Et enfin, le prix vidéo a été décerné au documentaire *Artzaingoa: nundik nora?* réalisé par Hélène Aldacourrou de l'association Euskal Herriko Artzainak. La remise des prix est fixée au samedi 31 janvier à la Mairie de Bayonne.



## Euskararen Nazioarteko Eguna, ENE

### Euskararen Nazioarteko Eguna



Bordeleko Eskualdunen Biltzarrak irabazi du ENE Saria 2008, Eusko Ikaskuntzak EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA dela eta urtero ematen duen saria. Epaimahaiak proposamenen originaltasuna eta euskal hizkuntza eta kultura zabaltzeko teknologia berrien erabilera baloratu ditu. Bordeleko Eskualdunen Biltzarra 1947ko abenduan sortu zen, Bordelen eta eskualdean bizi ziren euskaldunen arteko solidaritate izpiritua bultzatzeko, baita hezkuntzaren bidez kultura eta tradizio baloreak zabaltzeko ere.

### Universidad de Stanford

El 3 de diciembre, con motivo del Día Internacional del Euskera, en la Universidad norteamericana de Stanford tuvo lugar el seminario



*The Legal Status of the Basque Language Today*. La Jornada fue inaugurada por el Director del Departamento de Culturas Ibéricas y Latino-Americanas, Joan Ramón Resina, y por el Director Gerente de Eusko Ikaskuntza, Josemari Velez de Mendizabal, entidades organizadoras del acto. En la recepción que siguió a la Jornada su *Provost* (equivalente a Rector), John Etchemendy, alentó a seguir trabajando en el fortalecimiento de la oferta cultural vasca en aquella Universidad, la segunda en importancia del mundo.

## Gazteria

### ENE 08 komiki irabazlea



Euskararen Nazioarteko Egunak badauka komiki lehiaketaren irabazlea! Gazteria Sailak, horren egun garrantzitsua gaitzat hartuta komiki baten bidez istoriotxo bat sortzeko lehiaketa martxan jarri zuen eta jadanik badugu 500€ak jaso dituen parte hartzailearen izena. Nerea Beristain Mendizabal da eibartar gazte honen izena eta aurkeztutako istoriotxoak bere originaltasunagatik irabazi du saria, epaimahaiak horrela erabaki eta gero.



### Juventud en Acción




Ei Gazte! va a participar en el Programa Servicio Voluntariado Europeo dentro del marco *Juventud en Acción* de la Unión Europea. Junto con dos instituciones de Luxemburgo Ei Gazte! colabora en el diseño de un proyecto que permitirá participar a jóvenes voluntarios de diferentes países en una interesante experiencia. De este modo se favorecerá el aprendizaje no formal y el diálogo intercultural, y se dará a conocer la acción de Eusko Ikaskuntza entre los jóvenes.

## Jardunaldiak, Jornadas, Journées

### Innovación para la Sostenibilidad

Las Jornadas Internacionales *BAI. Caleidoscopio de la Innovación para la Sostenibilidad* reunieron en Bilbao del 2 al 4 de diciembre a algunos de los principales expertos europeos en cambio climático, economía, movilidad, dinámica de sistemas y energía. Durante tres días, los asistentes tuvieron ocasión de escuchar las aportaciones de estos expertos y participar en los debates sobre los temas propuestos y en el "world café". De todo ello se obtuvieron valiosas conclusiones que ayudarán a establecer nuevas líneas de trabajo.

### Edizio filologiko digitala

Abenduaren 11n eta 12an, Deustuko Unibertsitatean, Bilbon, euskal testuen edizioari buruzko Ihardunaldiak egin ziren, Eusko Ikaskuntzak eta Deustuko Unibertsitateak antolaturik. Lehen ekitaldian adituen mintegi bat mamitu zen *Edizio filologiko digitala: berrikuntzaren erronkak* gaiari buruz. Bigarren ihardunaldian bildu ziren edizioaren eremuko espezialistek hainbat gaiz eztabaidatu zuten: berrikuntza digitalak testu tratamenduan duen eragina, hala termino globaletan nola gure testuinguru kulturalean, horren perspektibak, bai oraingoak nola etorkizunekoak.

### Euskararen aldaerak

Abenduaren 12an eta 13an *Aldaketak, aldaerak, bariazioak euskaran eta euskal testugintzan* Ihardunaldiak egin ziren Baionan, Eusko Ikaskuntzak eta IKERek (Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Gunea) antolaturik. Bidasoaren bi aldeetako hogeita hamarren bat ikerlarik proposamenak eta gogoetak aurkeztu zituzten aldaketen eta aldaeren tratamenduari buruz, hala hizkuntzalaritzan nola testuen sorkuntzan. Lexikologia, fonologia, morfosintaxia, testu kritika, ahozko literatura, testuen historiografia... izan ziren azalpen gaietarik batzuk bi ihardunaldietan zehar.

### Sobre el poder judicial

La Sección de Derecho de Eusko Ikaskuntza celebrará una Jornada el 13 de febrero, en Donostia, en torno al tema de la independencia del poder judicial. Se prevén dos conferencias a cargo de relevantes especialistas: José Ignacio Lacasta Zabalza, Catedrático de Filosofía del Derecho de la Universidad de Zaragoza, hablará sobre *El poder judicial ante el derecho injusto*. Y Javier Pérez Royo, Catedrático de Derecho Constitucional, desarrollará el tema: *Entre la ley y la Constitución*. Esta Jornada se inscribe en la reflexión que lleva a cabo la Sección de Derecho sobre problemas jurídicos de actualidad.

### Anthropologie Maritime

Les 24 et 25 avril auront lieu à l'Ecole Nautique de la UPV-EHU, à Portugalete, les VIèmes Journées d'Anthropologie Maritime, qui traiteront de *Espaces et réalités maritimo-côtières : constructions sociales et culturelles*. Les réalités maritimo-côtières, en tant que partie intégrante de la Société et de la Culture du pays, encourageant à examiner l'actualité de cet environnement et à étudier ainsi sa connaissance scientifique en comparant des situations, des résultats et des progrès concernant la recherche et l'étude des sociétés et des cultures de la mer.











## Udalak

### Archivos fotográficos

A lo largo de 2008, Eusko Ikaskuntza y Euskomedia Fundazioa han continuado la labor de digitalización, catalogación y puesta en red de fotografías para la constitución de archivos de imágenes en el ámbito local. A demanda del Ayuntamiento de Hernani se han procesado en total cerca de 7.000 instantáneas además de documentación histórica de entre los años 1401 y 1880. En el caso del municipio navarro de Oroz Betelu, se ha puesto en red un fondo que supera las 800 fotografías. Finalmente, en Bera han sido casi 200 las imágenes con las que se ha abierto su nuevo fondo fotográfico.

### Tolosako "Bayoneta"

*Bayoneta. Tolosaco Napoleonen aurcaco aldizcaria, ó Periódico antinapoleónico de Tolosa*, horra inprimatzen hasi berria den orri baten izenburua, "Tolosan inprimatua bere legezco Udal eta Archiboaren babesean, Eusco Icascuntzaren pribilejioarequin" idazpuruan adierazten duenez. Garaiko prentsaren formatua eta tonua imitatuz, agerkari honen aleetan Independentzia gerraren historia kontatuz joango da Tolosako artxiboak daukan dokumentazioa erabiliz. Carlos Rilova Jerico bazkide eta historialaria da ekimen berezi honen arduraduna.

### Elias Salaverria

Abenduaren 11n eta 12an, hiru hitzaldi eman ziren Donostian Elias Salaverria margolariari buruz, haren jaiotegunaren 125. urteurrenaren kariaz. Urkiri Salaberria, artistaren birbilobak margolariaren giza nortasunaz hitz egin zuen. Jose Javier Fernandez Altuna, arte kritikariak bere lana aurrera eramateko Salaverriak izan zituen laguntzez ihardun zuen. Azkenik, Pello Fernandez, Bigarren Hezkuntzako Historia Katedradunak eta Ciga Fundazioko Idazkariak azterketa konparatiboa egin zuen Salaverriaren eta Javier Cigaren artean, garaikide eta lagunak izan ziren bi artisten artean.

### Ordizia: monografía

El 30 de diciembre en el salón de actos del Palacio Barrena de Ordizia se presentó el libro *De Villafranca a Ordizia, un camino pleno de historia*. Escrito por Ana Galdós a partir de una investigación para la que fue becada en 2004 en el marco del convenio de colaboración entre el consistorio y Eusko Ikaskuntza, el libro hace un recorrido a la historia del municipio. En la presentación intervinieron, además de la autora, el alcalde de Ordizia José Miguel Santamaría y el profesor titular de la UPV y socio de Eusko Ikaskuntza José Antonio Munita como director de la investigación.

### Mundaka y Lantaron

En los últimos días del año, dos nuevos Ayuntamientos firmaron sendos convenios con Eusko Ikaskuntza. El 15 de diciembre lo hizo la localidad vizcaina de Mundaka a través de su Alcalde Unai Rementeria, junto con el Vicepresidente territorial Jon Kortazar. Y tres días más tarde, Jesús Barredo como Alcalde de Lantaron y Nieves Urrutia como Vicepresidenta por Alava de Eusko Ikaskuntza, estamparon sus firmas en un convenio cuya primera realización será un estudio histórico que a lo largo de tres años llevará a cabo el socio Borja Gómez de Segura bajo la dirección de Carlos Rilova.

## Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresua

### XVII. Eusko Ikaskuntzaren Kongresuko kartela

Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresuak badu kartela. Mattin Osinalde legazpiarra da horren egilea. Arte Ederretan lizentziaduna, Mattin Osinaldek hainbat sari eta lehiaketa irabazi ditu, hala nola Lehenengo Akzesita Berlingo ideia proposamenduetarako europar lehiaketan, 2004, eta Urretxuko Udalaren logotipo berriaren egilea.

Kartelak elkartean den tentsioa eta haren berrikuntza premia islatzen du. Kolore desberdineko bederatzi guneren bidez adierazia agertzen da, bana Kongresuko gai bakoitzeko; gune horiek esku sinplifikatu batean biltzen dira lerro zuzen batzuk direla medio. Aukera kromatikoak beltza eta berdea konbinatzen ditu, Eusko Ikaskuntzak bere Kongresu guztietarako finkatua duenez.




### Comités scientifiques

Le Palacio Europa de Gasteiz sera le théâtre du XVIIème Congrès d'Etudes Basques, du 18 au 20 novembre, sur le thème *Innovation pour le progrès social durable*.

Comité Scientifique du Congrès:

- Teresa del Valle, comme Présidente
- Merche Agundez (Parlamentaire)
- Begoña Arregi (UPV/EHU)
- Garbiñe Biurrun (UPV/EHU)
- José Ángel Cuerda (Eusko Ikaskuntza)
- Pedro Gorrotxategi (Osakidetza)
- Jone Miren Hernández (UPV/EHU)
- Sixto Jiménez (Eusko Ikaskuntza)
- Jean-Michel Larrasquet (ESTIA)
- Mónica Moso (Innobasque)
- Nicanor Ursua (UPV/EHU)
- José Mª Rodríguez Ibabe (CEIT–Tecnun)

Comité Scientifique International:

- Gerhard Banse
- Hans-Joachim Petsche
- Marcela Lagarde
- Jean Pierre Claveranne

ASMOZ TA JAKITEZ

196

URTARRILA ENERO JANVIER 2009

## Argitalpenak





### RIEV. Cuadernos, 2

Desde la época de los griegos y romanos de la Antigüedad hasta la actualidad, el País Vasco siempre ha suscitado la atención de los extranjeros. Sin embargo, esa atención ha sido especialmente importante durante los siglos XIX y XX.

El libro *Imaging the Basques: Foreign Views on the Basque Country*, que hace el número 2 de la colección RIEV. Cuadernos, recoge siete aportaciones de historiadores, antropólogos y críticos literarios que analizan, cada uno desde su punto de vista y con su propia metodología, las miradas de los viajeros y observadores foráneos de la realidad vasca. El libro está editado íntegramente en inglés.

### Karlismoa Euskal Herrian

Karlismoa du aztergai Ikasi Jolastuz euskarri digitaleko bilduma didaktikoaren seigarren aleak. CD-ROM interaktiboek osatzen dute Eusko Media Fundazioak gauzatzen duen bilduma hau, bereziki 14-17 urte bitarteko gazteak helburu dituena. Hezkuntza joko honen bidez mugimendu politiko horren jatorria azaltzen da, Antzinako Erregimenaren aldekoen eta Frantses Iraultzaren babesean sorturiko ideiak aldezten zituztenen arteko europar borrokaren testuinguruan. Gainera, Euskal Herrian Foruen, Erdi Aroan jatorria zuten lege eta arau berezi haien eraginaren ondorioz legitimismoak izan zituen berezitasunak zehazten dira; horien aurka konstituzionalismoa agertzen zen, bere uniformetasun ahaleginekin.

## Fundación Asmoz

### La web más divertida

La web www.baserrieskolak.com ha sido elegida, por votación popular, la web vasca más divertida en los Premios Buber 2008, entregados el 11 de diciembre en el Museo Guggenheim de Bilbao. Creada bajo la dirección y coordinación de la Fundación Asmoz a encargo de Euskal Herriko Baserri Eskolak, la web quiere dar a conocer la importancia del medio rural a los escolares de 9 a 11 años de edad. Además, es un material didáctico que ayuda a fijar los conocimientos adquiridos en la visita a una granja-escuela. La web premiada ha sido realizada por Dedo Multimedia a partir de un guión elaborado por el socio de Eusko Ikaskuntza Juan Aguirre.



## Agenda

### Urtarrila / Enero / Janvier

16: Donostia.
Batzorde Eragilea / *Comité Ejecutivo*



31: Baiona. Entrega de *Prix Eusko Ikaskuntza-Ville de Baiona*

### Otsaila / Febrero / Février

13: Donostia.
Jornada de Derecho sobre la independencia del poder judicial



13: Batzorde Eragilea / *Comité Ejecutivo*

28: Fin de admisión a las becas Apraiz y Zumalabe



### Martxoa / Marzo / Mars

13: Baiona.
Batzorde Eragilea eta Batzorde Iraunkorra
*Comité Ejecutivo y Junta Permanente*



15: Fin de admisión a la beca Institut d'Estudis Catalans



31: Fin de admisión a la beca Arturo Campion



### Apirila / Abril / Avril

17: Batzorde Eragilea / *Comité Ejecutivo*

24-25: Portugalete. VI Jornadas de Antropología Marítima, que versarán sobre "Espacios y realidades marítimo-costeras: construcciones sociales y culturales"



### Maiatza / Mayo / Mai

15: Donostia. Batzorde Eragilea / *Comité Ejecutivo*

29: Donostia.
Batzar Nagusia / *Asamblea General*



### Ekaina / Junio / Juin

19: Gasteiz.
Batzorde Eragilea eta Batzorde Iraunkorra
*Comité Ejecutivo y Junta Permanente*



### Uztaila / Julio / Julliet

17: Batzorde Eragilea / *Comité Ejecutivo*

### Iraila / Septiembre / Septembre

18: Batzorde Eragilea / *Comité Ejecutivo*

### Urria / Octubre / Octobre

16: Bilbao.
Batzorde Eragilea eta Batzorde Iraunkorra
*Comité Ejecutivo y Junta Permanente*



### Azaroa / Noviembre / Novembre

13: Batzorde Eragilea / *Comité Ejecutivo*

18-20: Gasteiz.
Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresua



### Abendua / Diciembre / Decembre

18: Iruñea.
Batzorde Eragilea eta Batzorde Iraunkorra
*Comité Ejecutivo y Junta Permanente*



www.eusko-ikaskuntza.org/eu/novedadesyagenda

**Argitaratzailea**
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA.

**Secretaria de Publicaciones**
Eva Nieto

**Harpidetzak**
Asmoz ta jakitez etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:

**Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak**
Miramar Jauregia, Miraconcha, 48
20007 DONOSTIA
Tel. 943-310855
Fax 943-213956
ei-sev@eusko-ikaskuntza.org.

**Arabako Bulegoa**
General Alava, 5-1º
01005 GASTEIZ
Tel. 945-231552
Fax 945-148752
gasteiz@eusko-ikaskuntza.org.

**Bizkaiko Bulegoa**
María Díaz de Haro, 11-1
48013 BILBAO
Tel. 94-4425287
Fax 94-4414650
bilbo@eusko-ikaskuntza.org.

**Nafarroako Bulegoa**
Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D
31001 IRUÑEA
Tel. 948-222105
Fax 948-211737
iruna@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera 8:30-14:00 eta 15:30-17:30; ostirala, 8:00-15:00.

**Horario**
De lunes a jueves de 8:30-14:00 y de 15:30-17: 30; viernes de 8:00-15:00.

**Iparraldeko Bulegoa**
51 quai Jauréguiberry
64100 BAIONA
Tel. 559598290
Fax 559461844
baiona@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera: 8:30-12:00 eta 15:00-18:00. Ostirala: 8:00-12:00.

**Horaire**
Du lundi au jeudi: 8:30 à 12:00 et 15:00-18:00; vendredi de 8:00 à 12:00.

Argazkiak:
Eusko Ikaskuntzako Argazki Artxiboa

L.G.: SS-1056/92. ISSN 1133-9861
Inprimategia: Michelena a. g. Astigarraga